

## FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure produktua sortzeko hainbat baliabide eskeini ditzakegu, teknologia aldetik, teknologia enpresekin edo adituekin harremanetan jarri gaitzke tablet egoki bat aurkitzeko.

Beste aldetik, gure produktua ezagutzeko hezkuntza sailarekin komunikatuko gara, hezkuntza saileko langileak gure produktuaren informazioa eduki dezaten eta hainbat baliabide erabiliz gure produktua ezagutzera eramango dugu. Beraz, hauek dira gure taldeak egingo ditugun ekintzak gure negozio-eredua optimizatzeko.

Gure proiektuak zenbait arrisku izan ditzake. Horietako bat, jendeak soilik hezkuntzarentzat dela ulertzea da, hau da, soilik hezkuntzara bideratuta dagoen mahai bat dela eta ez beste edozein aplikazio erabiltzeko. Azken finean guraso askok erabilgarritasun gutxi ikusiko dizkie eta ez zaie egokia irudituko.

Beste aldetik, gerta liteke hezkuntza mahai hau ez nahi izatea azkenean, zenbait hezkuntza-eragile teknologia digitalen aurka daudelako, beraz, ez lukete inola ere mahai hau erosiko (honen frogatzat artikulu bat). Eta bukatzeko azken arazoa, taldekideeen artean desadostasunak egotea izango zen, hau da, proiektu bat hasterako garaian denek helburu bera eduki behar dugula argi dago, horretaz helburu berdina nahi izan behar dugu bestela izugarriko desadostasunak sortuko lirateke eta oso zaila izango litzateke denen artean lan txukun bat lortzea, kasu honetan oso zaila izango litzateke proiektu egoki bat lortzea.

Gure produktuari dagokionez hainbat funtsezko baliabide behar ditugu, horien artean, tableta, mahaia, software librea, aurikularrak, hezkuntza aplikazioak eta kristalera. Funtsezkoak dira, baliabide hauek gabe ezin izango litzatekeelako sortu dugun produktu hori egin.

Lehiakide ez diren eta interesgarri izan daitezkeen enpresa-mota; kristal ,pantaila, taktik bereziak egiten dituzten enpresak izango lirateke. Gure produkturako kristal sendoak eta sentzibilitate handikoak behar ditugu, beraz enpresa horrekin negozioak egin ditzakegu. Beste aldetik, gure enpresan bertan mahaia ekoizteko arotzak behar ditugunez, altzairuen enpresa batekin lankidetzan aritzea interesgarria izango litzateke.

Interesatzen al zaigun lehiakide diren enpresekin aliantza-estrategiko bat egitea, bi enpresa mota dira. Alde batetik, gure produktu bera edo antzekoak dituzten enpresak eta beste aldetik, tabletak saltzen dituzten enpresak. Lehenengoari dagokionez, produktu berbera edo antzekoa denez, argi dago lehiakide dela, horregatik bien interesetatik abiatuta posible da aliantza estrategiko bat egitea. Bigarrenari erreparatu, tabletak saltzen dituen enpresa ez da lehiakidea bestea bezala, baina neurri batean bai izan daiteke, eta gure mahaien tabletak inkorporatzen ditugunez, aukera erakargarri bat izan dezakegu enpresa hoiekin aliantza estrategikoak egiteko.

Erosle-hornitzaile aliantza posibleak direnak honakoak dira: lehenik eta behin, garrantzitsuena hezkuntza saila, azken finean gure produktu teknologikoa hezkuntza sailera

bideratuta dagoelako. Ondoren, dispositiboetaz oinarrituko digun marka bilatu behar dugu, eta azkenik anistasun funtzionalerako lan egiten dutne enpresak.

Gure bazkideak hezkuntza-enpresak, unibertsitateak eta hezkuntza agenteak izango lirateke; hala nola: Librezale, altzairuen enpresak arotzekin hitz egin eta elkarlanean jartzeko, tableten enpresak tabletak lortzeko. Horretarako, hauekin sozio egin eta gure produktua nolabait aurrera eramateko enpresekin bat egin eta gure produktua nolabait aurrera eramateko baliabideak izango genituzke. Honez gain, oso garrantzitsua da egunerokotasunean berrikuntza zein hobekuntzak egitea, gure produktua hobera joan eta kompetentzia gurea baino hobea izan ez dadin.

Gure hornitzaileak hauek izango lirateke: Librezale, mahaiak egiteko behar ditugun arotzak eta tableten epresak.

Talde barneko langile bakoitzari rol bat egokituko zaio, eta bakoitzak edukiko duen rol hori errespetatu eta bete beharko du, horrela funtzionatzen baitute gaur egungo enpresa arrakastatsuenetariko batzuk.

Talde barneko jarduerari dagokionez, jarduera ezberdinak egongo dira eta rolak jarduera horiek era egokian antolatzeko oso baliagarriak izan daitezke. Enpresa gehienetan hau izaten da antolamendu egokiena.